



ACTA DE LA SESIÓN DEL CONSEJO RECTOR DE LA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD CELEBRADA EL DÍA 14 DE MARZO DE 2025

En la Sede de la Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad (Portal de Castilla, 15, en Vitoria-Gasteiz) y siendo las 12:00 horas del 14 de marzo de 2025, comienza la sesión de su Consejo Rector, con la asistencia de las siguientes personas:

- D. Ander Caballero Barturen, Presidente de eLankidetzarako Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad (en adelante eLankidetzarako) y de su Consejo Rector. Asiste on-line.
- Vocal: D. Asier Aranbarri Urzelai, Director de Innovación Social y Agenda 2030.
- Vocal: D.^a Lores Bilbao Artetxe, Viceconsejera de Administración y Financiación Sanitarias. Asiste on-line.
- Vocal: D. Iván Bolinaga Salazar, Asesor de Programas y Estudios, suplente del Viceconsejero de Finanzas y Presupuestos, D. Enrique Corchón Alvarez. Asiste on-line.
- Vocal: Raúl Pérez Iracheta, Viceconsejero de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria. Asiste on-line.
- Vocal: D.^a Nerea Uriarte Goitia, en representación del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad, por la Coordinadora ONGD Euskadi.
- Vocal: D.^a Elsa Fuente Do-Rosario, en representación del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad, de la parte de otros agentes sociales no pertenecientes a la Coordinadora de ONGD. Asiste on-line.
- Vocal: D.^a Maitane Ipiñazar Miranda, representante del Parlamento Vasco. Asiste on-line.
- Secretario: D. Francisco Javier Cortés Fernández, Director de eLankidetzarako.

Asisten, asimismo, por invitación y con el objeto de ofrecer apoyo técnico a la presentación de los asuntos incluidos en el orden del día, D. Mikel Hidalgo Bordegarai, asesor de innovación social, D. Iker Del Río Lahidalga, sustituto de la responsable del servicio de coordinación técnica en asignación de funciones, D. Gregorio Domínguez Pérez, asesor sustituto de la responsable del servicio jurídico en asignación de funciones y Dña. Arantza Leza Bárcena, secretaria de la Dirección de eLankidetzarako.

Introducción



Toma la palabra Ander Caballero para dar la bienvenida a las personas asistentes y agradecer su asistencia. En el mismo sentido Javier Cortés que procede a la presentación del orden del día. Asimismo, por falta de tiempo se propone abordar el punto 7 en un próximo Consejo Rector.

A continuación se da inicio a la sesión cuyo orden del día es el siguiente:

1. *Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior celebrada el 22 de enero de 2025.*
2. *Información sobre el incremento en el presupuesto de eLankidetza para el 2025.*
3. *Aprobación de la modificación de la previsión presupuestaria del Plan Bienal de eLankidetza 2025-2026.*
4. *Aprobación del incremento presupuestario en los Fondos Distribuibles 2025 y Plan Estratégico de Subvenciones 2025-2028.*
5. *Criterios generales de otorgamiento de las convocatorias y subvenciones 2025 – Aprobación de los cambios derivados del incremento presupuestario de 2025.*
6. *Actualización de información sobre la previsión del calendario de convocatorias de ayudas y subvenciones 2025.*
7. *Información del protocolo de eLankidetza de actuación frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo.*
8. *Ruegos y Preguntas.*

1.- Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior celebrada el 22 de enero de 2025.

Al no realizarse ninguna observación por parte de las personas asistentes, se aprueba el acta de la sesión del 22 de enero de 2025, con los votos a favor de todas las personas asistentes.

2. Información sobre el incremento en el presupuesto de eLankidetza para el 2025.

Javier Cortés explica que el Consejo de Gobierno aprobó en sesión del 4 de marzo un aumento de 2,5 millones en el crédito disponible para financiar ayudas de cooperación para el desarrollo a impulsar por eLankidetza en 2025, y que fruto de ello deben actualizarse los instrumentos de gestión anual y plurianual aprobados en la sesión del 22 de enero del Consejo Rector.

Tras la exposición, toma la palabra Ander Caballero, e incide en la línea de ir haciendo esfuerzos adicionales para lograr futuros incrementos.

Acto seguido se pasa la palabra a Iker Del Río para abordar los siguientes puntos del orden del día.



3. Aprobación de la modificación de la previsión presupuestaria del Plan Bienal de eLankidetza 2025-2026.

Iker del Río, expone la modificación en la previsión presupuestaria del Plan Bienal a raíz del incremento expuesto en el punto anterior.

La misma se aprueba por mayoría, con la abstención de Nerea Uriarte, que expresa el agradecimiento de la coordinadora por el incremento, pero lo consideran insuficiente en la senda del logro del O'7.

Ander Caballero indica que el espíritu del planteamiento es ir dando pasos en positivo.

4. Aprobación del incremento presupuestario en los Fondos Distribuibles 2025 y Plan Estratégico de Subvenciones 2025-2028.

Iker del Río expone que de los 2,5 millones de incremento de desembolsos para 2025, 1,5 se propone destinar a proyectos de cooperación () y 1 a proyectos de acción humanitaria (PRE). Dada la distribución de pagos de PRO, los 1,5 millones orientados a incrementar los desembolsos de PRO en 2025 se traducen en 6 millones de incremento en los fondos distribuibles, igualando la dotación de 2024 con la propuesta de distribución interna entre capítulos que se expone: K1-Cooperación para el desarrollo 4,4 millones, K2-Desarrollo productivo, formación y asistencia tecnológica 0,1 millones y K3-Educación para el desarrollo 6,7 millones.

En tanto que para PRE, dado que toda la subvención se desembolsa en el año en que se concede, el aumento de 1 millón en la cuantía disponible para pagos 2025 se traduce en el aumento de 1 millón en los fondos distribuibles.

Por otra parte, junto a los incrementos de PRO y PRE por el aumento presupuestario, se propone un reajuste de fondos entre ayudas a procesos de cambio organizacional pro-igualdad de género (GBA) y subvenciones nominativas (ZUZ).

Se aprueba por mayoría de los asistentes y la abstención de Nerea Uriarte.

5. Criterios generales de otorgamiento de las convocatorias y subvenciones 2025 – Aprobación de los cambios derivados del incremento presupuestario de 2025.

Iker del Río desarrolla este punto, haciendo hincapié en los elementos que deben actualizarse como consecuencia del incremento de fondos, en particular, las cuantías de reserva de fondos para África en PRE y el número de solicitudes en PRO. Asimismo, hace una exposición sobre las ayudas a personas becarias (BEK), indicando que se definen los perfiles y los criterios que son los del Decreto que regula la convocatoria. Por otra parte habrá un incremento económico, y un cambio en las especialidades que



de especialización en género pasará a especialización en África en la línea de la hoja de ruta para África.

Se aprueba por mayoría de los asistentes con la abstención de Nerea Uriarte.

6. Actualización de información sobre la previsión del calendario de convocatorias de ayudas y subvenciones 2025.

En este punto Iker del Río indica que la tramitación del incremento presupuestario ha generado un retraso en la convocatoria de PRO, respecto a lo previsto inicialmente. Y que en ese sentido, se propone posponerla hasta al menos el 22 de abril, una vez pasada la semana santa, para evitar que este periodo coincida con los días de descanso. En contraposición se decide adelantar la convocatoria de ayudas a programas en la fase de identificación (PGM-Identificación) al final de marzo, para evitar el solapamiento con PRO.

Por su parte, la convocatoria de acción humanitaria (AH) está prevista para el 17 de marzo y en cuanto a la convocatoria destinada a personas becarias (BEK) se prevé para junio.

Ander Caballero indica su parecer positivo en cuanto a la planificación y espera que el año que viene se pueda hilar más fino. Por su parte, Nerea Uriarte agradece el planteamiento de facilitar la labor de las entidades teniendo en cuenta el período de la semana santa.


7. Información del protocolo de eLankidetzak de actuación frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo.

Se decide por mayoría de los asistentes dejar este punto para la reunión del próximo Consejo Rector.

8. Ruegos y Preguntas.

Sin otras cuestiones planteadas, el Presidente agradece la asistencia y da por finalizada la sesión a las 12:40 horas. En el mismo sentido agradece Javier Cortés.

En cumplimiento de lo previsto en el primer párrafo del artículo 18.2 de la Ley 40/2015, de 1 octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, se hace constar que el acta será aprobada en la próxima sesión del Consejo Rector de eLankidetzak-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad.


V.º B.º D. Ander Caballero Barturen
Presidente del Consejo Rector de
eLankidetzak


Francisco Javier Cortés Fernández
Secretario del Consejo Rector de
eLankidetzak



LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2025EKO MARTXOAREN 14AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2025eko martxoaren 14an, 12:00etan hasita. Pertsona hauek parte hartu dute:

- Ander Caballero Berturen jauna, eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetzarako) eta haren Kontseilu Errektorearen presidentea. Online parte hartu du.
- Batzordekidea: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntza eta 2030 Agendako zuzendaria.
- Batzordekidea: Lores Bilbao Artetxe andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea. Online parte hartu du.
- Batzordekidea: Iván Bolinaga Salazar jauna, Programa eta Azterlanetako aholkularia; Enrique Corchón Álvarez jaunaren, hau da, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordearen, ordezkaria. Online parte hartu du.
- Batzordekidea: Raúl Pérez Iracheta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea. Online parte hartu du.
- Batzordekidea: Nerea Uriarte Goitia andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, GGKE-en Koordinakundekoak ez diren beste eragile sozial batzuen aldetik. Online parte hartu du.
- Batzordekidea: Maitane Ipiñazar Miranda andrea, Eusko Legebiltzarreko ordezkaria. Online parte hartu du.
- Idazkaria: Francisco Javier Cortés Fernández jauna, eLankidetzarako zuzendaria.

Halaber, bileran parte hartu dute, gonbidapen bidez eta gai-zerrendako gaiak aurkeztean laguntza teknikoa emateko, Mikel Hidalgo Bordegarai jaunak (Berrikuntza Sozialeko aholkularia), Iker Del Río Lahidalga jaunak (koordinazio teknikoko zerbitzuaren

arduraduna ordezkatzuz eta haren funtzioak bere gain hartuz), Gregorio Domínguez Pérez jaunak (aholkularia, zerbitzu juridikoaren arduraduna ordezkatzuz eta

Gaztelako Atea, 15 - 01007 GASTEIZ Tel. 945 01 80 87 - e-mail: agencia@elankidetza.eus www.elankideteuskadi.eus
haren funtzioak bere gain hartuz) eta Arantza Leza Bárcena andreak (eLankidetzako zuzendariaren idazkaria).

Sarrera

Ander Caballerok hartu du hitza eta ongietorria egin die bertaratu diren pertsonei, eta etorri izana eskertu die. Javier Cortésekin gai-zerrenda aurkeztu du. Denbora-falta dela eta, 7. puntua Kontseilu Errektorearen hurrengo bileran lantzea proposatu da.

Jarraian, saioa hasi da. Hona hemen gai-zerrenda:

1. 2025eko urtarrilaren 22an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.
2. eLankidetzaren 2025erako aurrekontuaren hazkundearen gainerako informazioa.
3. eLankidetzaren 2025-2026 aldirako Biurteko Planaren aurrekontu-aurreikuspenaren aldaketa onartzea.
4. 2025eko Funtz Banagarrien eta 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aurrekontua handitzea onartzea.
5. 2025eko deialdiak eta dirulaguntzak esleitzeko irizpide orokorrak – 2025eko aurrekontua handitzeak ekarri dituen aldaketak onartzea.
6. 2025eko laguntzen eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa eguneratzea.
7. Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko eLankidetzaren protokoloaren gainerako informazioa.
8. Eskariak eta galderak.

1.- 2025eko urtarrilaren 22an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.

Bileran parte hartu duten pertsonek ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2025eko urtarrilaren 22ko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

2. eLankidetzaren 2025erako aurrekontuaren hazkundearen gainerako informazioa.

Javier Cortésekin azaldu duenez, 2025ean eLankidetzak bultzatu beharreko garapenerako lankidetzaren arloko laguntzak finantzatzeko eskuragarri dagoen kreditua 2,5 milioi euro handitzea erabaki zuen Gobernu Kontseiluak, martxoaren 4ko bileran. Ondorioz, eguneratu egin behar dira Kontseilu Errektoreak urtarrilaren 22ko saioan onartutako kudeaketa-tresnak, urtekoak zein hainbat urtetarakoak.



Azalpenaren ondoren, Ander Caballerok hartu du hitza, eta etorkizunean beste igoera batzuk lortzeko ahalegin gehigarriak egiten jarraitu behar dela nabarmendu du.

Jarraian, Iker Del Ríori pasatu diote hitza, gai-zerrendako hurrengo puntuei heltzeko.

3. eLankidetzaren 2025-2026 aldirako Biurteko Planaren aurrekontuaurreikuspenaren aldaketa onartzea.

Biurteko Planaren aurrekontu-aurreikuspenaren aldaketa azaldu du Iker del Ríok. Aurreko puntuan aipatutako igoerak eragin du aldaketa.

Aldaketa onartu egin da, gehiengoaren botoekin. Nerea Uriarte abstenitu egin da; Koordinakundeak igoera eskertzen duela adierazi du, baina ez zaiela nahikoa iruditzen 0,7 lortzeko bidean.

Ander Caballerok esan duenez, aurrerapausoak ematen joatea da planteamenduaren espiritua.

4. 2025eko Funts Banagarrien eta 2025-2028 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aurrekontua handitzea onartzea.

Iker del Ríok azaldu duenez, 2025erako gastuen 2,5 milioiko hazkunde horretatik, 1,5 milioi lankidetzaproiektuetara bideratzea proposatzen da (PRO), eta 1 milioi ekintza humanitarioko proiektuetara (PRE). PROren ordainketen banaketa dela eta, 2025ean PROren gastuak handitzera bideratutako 1,5 milioien ondorioz, 6 milioiko hazkundera izango dute funts banagarriak. Hala, 2024ko zuzkidura berdinduko da. Hona hemen kapituluaren arteko banaketa-proposamena: K1-Garapenerako lankidetzak, 4,4 milioi; K2Ekoizpenaren garapena, prestakuntza eta laguntza teknologikoa, 0,1 milioi; eta K3Garapenerako hezkuntza, 6,7 milioi.

PREri dagokionez, dirulaguntza ematen den urtean bertan ordaintzen da dirulaguntza osoa. Hortaz, 2025eko ordainketetarako eskuragarri dagoen zenbatekoa 1 milioi hazita, 1 milioi haziko dira funts banagarriak.

Bestetik, aurrekontuaren igoera dela eta PRO eta PRE haztearekin batera, honakoei bideratutako laguntzen artean funtsak birdoitzea proposatzen da: generoberdintasunaren aldeko erakundearen aldaketa-prozesuak (GBA) eta dirulaguntza izendunak (ZUZ).

Bertaratuen gehiengoarekin eta Nerea Uriarteren abstentzioarekin onartu da.

5. 2025eko deialdiak eta dirulaguntzak esleitzeko irizpide orokorrak – 2025eko aurrekontua handitzeak ekarri dituen aldaketak onartzea.

Iker del Ríok garatu du puntu hau. Hala, funtsen hazkundera dela eta eguneratu behar diren elementuak nabarmendu ditu; bereziki, Afrikarako gordetako funtsen zenbatekoak PREn, eta eskaera kopurua PROn. Halaber, bekadunei zuzendutako laguntzak (BEK)



azaldu ditu, eta profilak eta irizpideak definitu direla esan du. Deialdia arautzen duen Dekretuak jasotzen dituenak dira profilak eta irizpideak. Bestetik, hazkunde ekonomiko bat izango da, eta espezializazioak aldatuko dira. Genero-espezializazioa izatetik, Afrikako espezializazioa izatera pasatuko da, Afrikarako bide-orriaren ildotik.

Bertaratuen gehiengoarekin eta Nerea Uriarteren abstentzioarekin onartu da.

6. 2025eko laguntzen eta dirulaguntzen deialdien egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa eguneratzea.

Iker del Ríok puntu honetan adierazi duenez, aurrekontuaren hazkundearen tramitazioa dela eta, atzeratu egin da PROren deialdia, hasiera batean aurreikusitakoarekin alderatuta. Hortaz, gutxienez apirilaren 22ra arte atzeratzea proposatu da; hau da Aste Santua amaitu arte. Hala, aldi hori atseden-egunekin bat etortzea saihestuko da. Aldiz, identifikazio-fasean dauden programei zuzendutako laguntzen deialdia (PGM identifikazioa) martxo amaierara aurreratzea erabaki da, PROrekin bat ez etortzeko.

Bestetik, ekintza humanitarioko deialdia (AH) martxoaren 17rako dago aurreikusita, eta bekadunei zuzendutako deialdia (BEK) ekainerako aurreikusten da.

Ander Caballerok esan du ongi irizten diola plangintzari, eta datorren urtean hobeto egin ahal izatea espero duela. Bestetik, Nerea Uriartek eskertu egin du erakundeen lana erraztera bideratutako planteamendu hori, Aste Santua kontuan hartuta.


7. Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko eLankidetzaren protokoloaren gaineko informazioa.


Bertaratuen gehiengoaren adostasunez, puntu hau Kontseilu Errektorearen hurrengo bilerarako uztea erabaki da.

8. Eskariak eta galderak.

Beste gairik proposatu ez denez, presidenteak eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio saioari, 12:40ean. Javier Cortésekin ere eskerrak eman ditu.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.


Ander Caballero Barturen jaunaren
oniritzia
eLankidetzako
Kontseilu Errektoreko presidentea


Francisco Javier Cortés Fernández
eLankidetzako
Kontseilu Errektoreko idazkaria